

A black and white photograph of three young people (two men and one woman) standing on a balcony, leaning on a metal railing and smiling. The man on the left is wearing a hoodie with 'ACK&JON' on it. The man in the middle is wearing a quilted jacket. The woman on the right is wearing a t-shirt with a graphic that says 'GORA BEGIRA MUGARIEZ ONDDO TA PUNTO.' In the background, there is a brick wall with a large logo and the text 'paz de iganda ASTO'. A large green circle is in the top left corner, and a yellow triangle is in the bottom left corner.

**Aukerazko  
irakasgaiak**

**BATXILERGOA** 1.maila

1.maila

# Aukerazko irakasgaiak

Batxilergoko 1. mailan bi hautazkotasun-tarte daude:

- Euskara Sakontzen C1
- English Workshop (B2)
- IKT
- Kultura Zientifikoa

- Frantsesa I
- Alemana I
- Nafarroako Historia

# Euskara Sakontzen



Hautazko irakasgai honek gure ikastolako hizkuntza-proiektua osatzen eta aberasten du, euskara eremuan.

Arlo hau sakontze aukera bat da eta euskarazko C1 maila lortzea du helburu, NUHEOren azterketaren bidez.

## Helburuak:

C1eko azterketa ofizialetan gaitasun bakoitzean behar den maila garatzea da helburua:

- Ahozkotasuna lantzeko aukera paregabea.
- Dugun errealitatea ezagutu! Egunkari, aldizkari eta irratsaioen bidez jasotako egunerokotasun handiko testuak erabili, edozein gairen inguruan informazioa izate aldera.
- NUHEOko azterketa ereduaren prestaketa.
- Aisialdian ere euskarak badu lekua.

ARLOA	Curriculumaren baitan (aldi berean ematen dira)	Orduz kanpoko ekintza	
INGLESA	Batx1 English workshop (B2)	DBH4, B1 The Point Academy	
EUSKARA	Batx1 Euskara Sakontzen (C1)	DBH4, B2 prestaketa, IKA	Batx1-2 C1 Prestaketa ostiralero, IKA

# English Workshop (B2)

Aukerazko arlo honek gure ikastolako hizkuntza-proiektua osatzen du inglesaren trataera aberastuz.

Helburua ingeleseko B2 maila lortzea da, NUHEOren edo Cambridge-ko azterketen bidez.

## Helburuak:

- Ohikoak diren gaien hiztegia landu.
- Azterketan idatzi behar diren idazlan eredu ezaugarriak aztertu eta ereduak idatzi. Feedback-aren bidez hobetu.
- Probaren atal bakoitza ezagutu eta gaitzetzeko behar diren estrategiak garatu praktikaren bitartez.
- Ahozko azterketaren atal ezberdinak ezagutu eta praktika egin.
- Gramatikako ohiko akatsak zuzendu eta estruktura aurretatuak erabiltzen hasi.

ARLOA	Curriculumaren baitan (aldi berean ematen dira)	Orduz kanpoko ekintza	
INGLESA	Batx1 English workshop (B2)	DBH4, B1 The Point Academy	
EUSKARA	Batx1 Euskara Sakontzen (C1)	DBH4, B2 prestaketa, IKA	Batx1-2 C1 Prestaketa ostiralero, IKA



# IKT I

## Informazio eta Komunikaziorako Teknologiaak I

Hautazko irakasgaia da, gure ikastolako komunikazio eta gaitasun digitalak sendotzen dituena.

Arlo honetan gaur egungo gizartean hain beharrezkoak diren gaitasun digitaletan trebatzea da helburua. Tresna informatiko ezberdinak ezagutu eta beraien erabileran trebatu eta pentsamendu konputazionala sustatzeko.

### Helburuak:

Gaitasun digitaletan trebatzea da helburu, tresna informatiko ezberdinak erabiliz:

- Edozein ibilbidetako ikasleei zuzendua.
- Dokumentu digitalen erabilerari etekin handiagoa ateratzea, ezaugarri nagusiak aztertuz.
- Web orrialde bat sortu kontutan izanik eskeintzen dituen baliabideak formato aldetik.
- Excel orriek duten potentzialaz jabetu eta erabileran trebatu datuen analisi eraginkorragoa egiten ikasteko.
- Pentsamendu konputazionalera bideratutako oinarrizko programazio lengualetan trebatzea.
- Irudi eta bideo edizioan sakondu eta dauden tresnak aztertu.



# Kultura Zientifikoa

Hautazko irakasgai da, gure ikastolako zientzia ikuspuntua eta izaera kritikoa lantzen eta aberasten duena.

Arlo honetan gure gizarte eta egunerokotasunean ditugun gai zientifikoak jorratu eta horien inguruko jakintza orokor bat lantzea da helburua. Gai desberdinen inguruan pentsamendu kritikoa eraikitzeko beharrezko tresnak eskuratzeko.

## Helburuak:

Arlo desberdinetako ezagutza zientifikoa eta pentsamendu kritikoa garatzea du helburu:

- Edozein ibilbidetako ikasleei zuzendua. Beraien ibilbideko gai espezifikoei begirada zientifikoa ematea.
- Oinarrizko galdera zientifikoari eta gaur egun gizartean garatzen ari diren gaiak lantzea.
- Zientziak jakintza partekatzeko erabiltzen dituen euskarriak ezagutu eta lantzea.
- Jendaurreko ahozko adierazpenak duen garrantziaz jabetu eta landu.
- Informazio iturri fidagarri eta baliagarriak ezagutu eta identifikatzea
- Ingelesari presentzia eman eta komunikaziorako duen erabilgarritasunaz jabetu eta erabiltzen trebatu.





# Frantsesa

DBHn Frantsesa 4 urtez landu duten ikasleek maila ona ekartzen dute batxilergora eta haien formakuntza borobiltzeko gogoz, frantsesa hautatzen dute batxilergoko bi mailetan.

Frantsesak, kultur orokorra aberasteaz gain, Frantzian edo Frantziarekin lotutako lanbideak hartzen lagunduko ditu ikasleak, beraien etorkizunaren aukerak zabalduz. Hortarako ikaslea DELF, N.U.H.E.O. edota U.S.E. frogetan trebatzen da.

Europa osoan erabiltzen ari diren C.O. (ahozkoaren ulermena), C.E. (idatziaren ulermena), E.O. (ahozko adierazpena) eta E.E. (adierazpen idatzia) gaitasunen inguruan garatzen da lana. Lan hau kultur edukiekin osatzen da artikulu eta bideo-erreportai garaikidekin baita zinema frantsesaren film ezagun eta interesgarrienekin.

Ikasleek lortu duten frantsesa maila praktikan jartzeko parada paregabea dute Parisera ikasbidaia egiten.



# Alemana I

Hizkuntza eta kultura berriak ezagutzeko interesa duten ikasleei zuzendutako arloa da hau. Ikasleek oinarrizko hizkuntza maila sendoa lortu eta alemana hitz egiten den herrialdeetako kultura ezagutzea dira helburu nagusiak. Kultur ezagutza eta kontzientzia lortzen hasteko, hainbat proiektu, film eta komunikazio-egoeraz baliatuko gara, bai eta Alemaniako institutu batekin antolatzen dugun ikasle-trukeaz ere.

## Helburuak:

- HEEBren A1.1 maila lortzea lau komunikazio gaitasun nagusietan.
- Oinarrizko gramatika edukiak bereganatu eta hizkuntzaren funtzionamendua eta logika ulertzen hastea.
- Film eta proiektuen bitartez hainbat alderdi kultural lantzeko aukera.
- Oinarri sendoa lortzea zaletasuna sortu eta etorkizunean hizkuntza ikasten jarraitu eta hainbat egitasmotan parte hartu ahal izateko (Erasmus, egonaldiak atzerrian, etab.).
- Alemaniako insituto batekin egiten dugun trukaketan parte hartzera animatu eta Alemanian astebete igarotzea.



# Nafarroako Historia

Nafarroako Historian eta Geografian interesa duten ikasleei zuzendutako arloa da hau. Ikasleek Aurrehistoriatik gaur egun arte gure lurraldean emandako gertakari nagusiak ezagutuko dituzte, Euskal Herriko kulturaren sakonduz eta hausnartuz. Horretarako, hainbat proiektu burutuko dituzte, talde handi eta txikitan, film eta dokumentalak ikusiko dituzte eta irteera desberdinak burutu. Ikasleek Nafarroaren gaur egungo errealitatea perspektiba historikoz ezagutzeko aukera izango dute.

## Helburuak:

- Nafarroako Historiako garai eta gertakari nagusiak ezagutzea.
- Nafarroako Geografia osatzen duten elementu geografiko garrantzitsuenak ezagutzea.
- Proiektu edo filmen bitartez Nafarroako eta Euskal Herriko kulturaren ezagutzan sakontzea.
- Etorkizunera begira hiritar kritiko eta arduratsuak sortzea, beraien sorterriaren ezagutza zabal eta osoa izanik.
- Gure lurraldearen historiako toki esanguratsuak ezagutzea, haiek bisitatuz.

